

OSOGUNEKO ERAKASKERA

1993-94

① ELHEKETA. ASTE HUNTAKO ELHEPIDEA

- 1. Aitzinatua zena behin eta berriago?
- 2. Nor zena Theobald lehenbizikoa?
- 3. Zor bat ekaratu bezala Nafarroan erduan

ZER GINEN ~~ETA~~ ZER GIREN. 2

* * *

Nafarroa haizu edo azkatua zelarik Europa erresuma aitzinatuen lerroan zen bethi.

Gutenberg alemanak moldezko hitzak asmatu eta argiarazi zituelarik berehala Nafarroan hedatu ziren hitz moldegiak.

Baginituen Iruñen, Lizarran, Tudelan, Sanguesan, Tafallan, Corellan, Irachen, Irantzun eta bertze lekhituan.

Iruñen egiten ziren Greko eta Latin behialako idazle aiphatuenen liburuak, Homero-ren *Iliada*, Virgilioren *Eneida*, eta holako bertze mundian liburu aiphatuenak.

Oixtian mintzatu giren Cisneros horrek, Alcalá de Henares-eko eskol-etxe nagusia eraiki zuelarik eginarazi zuen denbora hetan libururik aiphatuenetarik bat, *Biblia poliglota* deithua, erran nahi baitu, Liburu saindua bospasei hizkuntzetan idaztia.

Lan berexi hortako xekatu⁴ zuen hitz moldarzaile hobereena eta treberena. Eta Espainiako bazter guziak miatu ondolan haren bilha azkenian hautatu zuen Iruñeko bat, Arnaldo Brumario deithua, alemana sortzez, bainan hunarat ethorria bere lanpide edo ofizioko lanak hemen ausarki kausitzen zituelakotz. Haren alaba bat ezkondu zen Lizarrako Egia, liburu egilearekin.

Hortarik ageri da Nafarroan yakitatea arras hedatua zela eta yende argitua eta eskolatua bazela.

Eta sail huni sobera hedadura ez emaiteko ez ditut hemen aipatu nahi Nafarroak eman zituen seme haundiak yakitate mota guzietan, bai eta ere gudularien arthean.

Bego hori beste aldi batetarako.

Theobald lehenbizikoa, (Sancho el Fuerte-ren iloba) Nafarroaren errege izendatu zutelarik, ospe haundiarekin, Champagne, bere sor-lekhitik ekharri zituen hango laborantzako molde aitzinatuenak, zuhaitzentzat, landarentzat, baratzekearentzat; ongailu, ereintza, hazi eta lurgintzako zer guziendako. Hots, Nafarroako lurra aberatstu zuen.

Eta oraiko denboretatik mintzatzen balin bagira erakutsarazteko Nafarroa bethi Espainia baino aitzinago doala (eta gauza bera erran daiteke Eskual-herri guztik) hor ditugu gure eskolak.

Baditugu zazpi ehun eta berrogoita hamar-eskola (750), eta horietarik bost ehunez goiti berriak, eraikiak hamalau azken urthetan. Eta ze etxe ederrak! denak beren errinta⁵ eta errintsa⁶ egoitzekin.

② ADITZ IKASKUNTZA.

- 31. Aitzinago doala 32. Eman daiteke
- 33. Eskerduen gitzagizko 34. Ethorri zitzagizkidate

JOAN. Conj. forte. Indicatif.

Present	Imparfait
Ni noa (je vais)	nindoan (j'allais)
Hi hooa	hindoan
Zu zoatzi	zinoatzen
Hura doa	zoan
Gu goatzi	ginoatzen
Zuek zoatze	zinoatzen
Hek doatzi etc.	zoatzen etc.

32. IZAN. Potentiel

Present	Imparfait.
Ni izan naiteke = je pourrais	izan nintzen = j'aurais
Hi " haiteke	" hintzen
Zu " zaitzke	" zintzen je
Hura " daiteke	" zitzen pour
Gu " gaitzke	" gintzen etc
Zuek " zaitzket	" zintzketen
Hek " daitezke etc.	" zitezken etc

33. IZAN. Régime Indirect. Indicatif. Present

Singulier (ni naiz = je suis)	
Ni nitzaizu (à vous) zuri	= je vous suis
" nitzaio (à lui) hari	= je lui suis
" nitzaizue (à vous) zueri	= je vous suis
" nitzaie (à eux) heieri	= je leur suis

Pluriel (gu gara = nous sommes)	
Gu gitzagizkizu (à vous) zuri	= nous vous sommes
gitzagizkit (à lui) hari	= nous lui sommes
gitzagizkizue (à vous) zueri	= nous vous sommes
gitzagizkie (à eux) heieri	= nous leur sommes

1934